Bypass-a AP-636an Gabiria eta Ormaiztegi artean Beasaingo norabidean asteburuan asfaltatze-lanak direla-eta

Urriaren 23tik, ostiraletik, 19:00etatik, 25era, igandera, 01:00etara Beasaingo norabidean doan trafikoa Bergarako norabideko plataformatik desbideratuko da.



Bidegi 14,9 milioi euroko inbertsioa egiten ari da AP-8, AP-1, GI-20 eta AP-636 errepideetako 46 kilometrotan zorua berritzeko. Helburua da zoladuraren baldintza estrukturalak eta funtzionamendua mantentzea, bide-segurtasuna bermatuz eta ematen den zerbitzu mailari eutsiz.

Horren harian, asteburu honetan, urriaren 23tik, ostiraletik, 25era, igandera, kanpaina honetako zazpigarren jarduketaren asfaltatze-lanak egingo ditu AP-636an, Gabiria eta Ormaiztegi artean, 7,250 eta 4,250 pk artean, Beasaingo norabidean, eta horrek bypass-a sortzea ekarriko du ostiral arratsaldetik larunbatetik iganderako gaua arte.

Hala ere, lanak ostiralean goizean hasiko dira bypass-a prestatzeko aurreko lanak egiten. Horretarako 08:00etatik aurrera ezkerreko erreia itxiko da Bergarako norabidean 4,250 eta 7,250 pk artean. Era berean, Beasaingo norabidean, 09:00etatik aurrera, ezkerreko erreia itxiko da Gabirian, 7,500 eta 7,250 pk artean, erdibideko pasoa irekitzeko, eta 11:00etatik aurrera, Ormaiztegin 4,500 eta 4,250 pk artean, beste muturreko erdibideko pasoa irekitzeko.

Bypassa ostiraletik igande goizaldera

Lan horiek sortuko duten afekzio nagusiena, ostiralean, urriaren 23an, 19:00etatik aurrera sortu behar izango den bypass-a da. Ordu horretatik aurrera Beasaingo norabidean doan trafiko guztia Bergarako norabideko plataformatik desbideratuko da asfaltatze-lanak egin ahal izateko. Aurreikusita dago bypass-a indarrean egotea urriaren 24tik 25erako, larunbatetik iganderako, gaueko 01:00ak arte.

Halaber, bypass-a indarrean dagoen bitartean AP-636 errepidearen Ormaiztegiko 5.lotunea itxita egongo da Beasaingo norabidean. Horiek horrela, denbora tarte horretan Beasaingo norabidean lotune hori erabiltzea aurreikusita zuten erabiltzaileek Ormaizategiko 3.lotunea erabili behar izango dute.

Igandean afekzioak ezkerreko erreian bi norabideetan

Behin asfaltatze-lanak amaituta, igandean azken lanak egiteko eta erdibideko pasoak ixteko, ezkerreko erreia itxita mantenduko da bi norabideetan, Ormaiztegin, 4,500 eta 4,250 pk artean, urriaren 25etik 26rako, igandetik astelehenerako, gaueko 02:00ak arte.

Bidegik jakinarazten du ordutegi hauek guztiak gutxi gorabeherakoak direla, izan ere, eguraldia bezalako faktoreek aldaketak eragin ditzakete. Horren harian, gomendatzen du zuhurtziaz gidatzeko eta seinaleen zein lanean arituko diren langileen instrukzioak jarraitzeko.

Zarautz, 2026-10-21

Bypass en la AP-636 entre Gabiria y Ormaiztegi sentido Beasain este fin de semana debido a trabajos de asfaltado

Desde el viernes 23 de octubre a las 19:00 horas, al domingo 25 a las 01:00 horas, el tráfico sentido Beasain se desviará por la plataforma sentido Bergara.



Bidegi está realizando una inversión de 14,9 millones de euros en la renovación de 46 kilómetros de firmes de la AP-8, AP-1, GI-20 y AP-636. El objetivo de la campaña es mantener las estructuras funcionales del pavimento, preservando la seguridad vial y el nivel del servicio.

En este sentido, este fin de semana, desde el viernes 23 al domingo 25 de octubre, llevará a cabo la séptima actuación que consistirá en el asfaltado de la AP-636 entre Gabiria y Ormaiztegi, entre los pk 7,250 y 4,250, sentido Beasain, lo que provocará la creación de un bypass entre el viernes por la tarde y la noche del sábado al domingo.

Aun así, los trabajos comenzarán el viernes por la mañana con la preparación necesaria para la realización del bypass. Para ello, a partir de las 08:00 horas se cerrará el carril izquierdo sentido Bergara entre los pk 4,250 y 7,250. Del mismo modo, sentido Beasain, a partir de las 09:00 horas se cerrará el carril izquierdo en Gabiria entre los pk 7,500 y 7,250 para proceder a la apertura del paso de mediana, y a partir de las 11:00 horas, en Ormaiztegi, entre los pk 4,500 y 4,250, para abrir el paso de mediana en el otro extremo.

Bypass desde el viernes a la madrugada del domingo

La principal afección que provocarán los trabajos de asfaltado será la creación de un bypass a partir del viernes 23 de octubre a las 19:00 horas. Desde ese momento, todo el tráfico que circule sentido Beasain será desviado por la plataforma sentido Bergara, para poder realizar el asfaltado. Está previsto que el bypass se mantenga activo hasta las 01:00 horas del sábado 24 al domingo 25 de octubre.

Asimismo, mientras esté activo el bypass, el enlace 5 de la AP-636 en Ormaiztegi estará cerrado sentido Beasain. De este modo, las personas usuarias que tuvieran previsto utilizar este enlace sentido Beasain deberán emplear el enlace 3 de Ormaiztegi.

Afecciones en el carril izquierdo en ambos sentidos el domingo

Una vez finalizados los trabajos de asfaltado, para cerrar los pasos de mediana, durante toda la jornada del domingo se mantendrá cerrado el carril izquierdo en ambos sentidos en Ormaiztegi entre los pk 4,500 y 4,250. Está previsto que estos cierres de carril finalicen la madrugada del domingo 25 al lunes 26 de octubre a las 02:00 horas.

Bidegi informa que los horarios establecidos para realizar estos trabajos son aproximados, ya que pueden variar dependiendo de factores como la meteorología. En este sentido, aconseja circular con precaución y seguir las indicaciones establecidas tanto por las señales como por el personal de obra que se encontrará en el lugar.

Zarautz, 2026-10-21